



GOIZUETA

2003ko apirila - 2. alea

Goizuetako
aldizkaria



Goizueta bertatik bertara



aukibidea

ale honetan



- 4.....Megalitismoa
- 5.....Kultur taldea sortu da
- 6-7.....Xirri-toki bila
- 8.....Goizuetako suhiltzaileak eta ambulantiako laguntzaileak
- 9.....Ezetz asmatu
- 10-12.....Arantxa Loiarteri elkarrizketa
- 13.....Herriko etxearen historia
- 14-15.....Inkesta
- 16....."Dani, gazte independentea"
- 17.....Urteko argazkia eta zure txokoa
- 18-20.....Gazte hizkera
- 21.....Gaurko menua
- 22.....Oitura zarrak
- 23.....Goizuetako abizenak
- 24-25.....Test-a
- 26.....Goizuetako toki-izenak
- 27.....Txistekak
- 28.....Zure txanda

- **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua
- **Diseinua:**
Allende Arnaiz
- **Maketazioa:**
igorasti@terra.es
- **Laguntzaileak:**
Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua

- Nafarroako Gobernua:
- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
 - Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



Goizueta

bertatik bertara

Xapo aldizkariaren bigarren alea duzu eskutan, irakurle. Horrek esan nahi du, jakina, lehendabizikoa argitaratu ondoren jarraitzeko gogoia gelditu zaigula. Izan ere, Xaporen lehendabiziko aleak harrera ona izan zuela iruditu zitzaigun eta aurrera egitea erabaki genuen.

Hobetu daitekeela? Zalantzarik gabe. Eta horretan saiatuko gara lan horretan ari garenok. Gure ahaleginari zuen laguntza ere gehituko balitzai, askozaz hobe. Izan ere, zenbat eta ekarpen gehiago izan, orduan eta aberatsagoa eta ederragoa aterako zaigu aldizkaria.

Ale honetan ere, aurrekoan bezala, Goizueta da gai nagusia. Goizuetan eta goizuetarrentzat egindako aldizkaria baita Xapo. Ez du horrek esan nahi Goizuetatik kanpo begiratu behar ez denik, eta hemen ere horrelaxe pentsa-

tzen dugu, baina bertakoa ere zaindu behar da eta geure burua ere ezagutu eta aztertu behar dugu. Herri bati bizi-rik eusteko bertakoa estimatu behar da, eta estimatzeko ezagutu ere egin behar da. Hori da, besteak beste, aldizkari honen helburua.

Aldizkari hau Goizuetako Kultur Taldeak prestatu eta argitaratzen du, euskara zerbitzuaren laguntzarekin. Baina aldizkariaren gainera, ale honetan idatzitako artikulu batean ikusiko duzuen moduan, beste lan batzuk ere egiten ari dira, herriak duen ondarea eta herriaren ezaugarriak dibulgatzeko.

Eta lan horren beharra azpimarratu nahi dugu hemen, oso garrantzitsua delako herriaren nortasunari sendo eustea herriak berak etorkizuna ziurtatua izan dezan. Garbi baitago Goizueta bezalako herri "txikiek", eta are gehiago geografikoki baztertu

samar daudenek, herriaren bizitasunari eutsi eta herria garatzeko zailtasunak izan ditzaketela. Eta horren aurrean ez dago, akaso, miraririk egiterik, baina zenbait gauza egin daiteke, esate baterako herriarekiko atxikimendua eta lotura sendotu eta herriaren nortasuna indartzea, apologiakeria hutsean erori gabe, noski.

Herriaren inguruko berriak eta jakingarriak ezagutarazteko plaza izan nahi du aldizkari honek, entretenigarria izateaz gainera. Beraz, eta lehendik ere esana dago, eginkizun horretan bere aletxoak jarri nahi duen edonorentzat irekita daude ateak, eta zinez eskertuko genuke ekarpenak jasotzea, hurrengo aleak ere zuen gustukoak eta herriarentzat mesedegarri izan daitezten.

Besterik gabe, aldizkaria zabaltu eta gozatua har dezazuen espero dugu, horretarakoxe egin baitugu.



Goizuetako megalitoak

Megalitismoa

Megalitismoa harri handien erabilpena dugu eta espazio bat markatzeko (edo arkitectura sortzeko) egiten zen. Esfortzu handia behar izaten zuen. Lehenik harria aurkitu eta garraiatu behar zen eta ondoren leku berezi batzuetan kokatu, gainera modu konplikatu batean. Langile asko eta inestigazio bat behar zela uste da; suposatzen da gizarteko talde handi bat ehizarako erabili beharrean, lan honetan erabiltzen zela.

Bi lekutan garatu zen megalitismoa: Europako mendebaldean (Portugaletik Irlandara) eta ekialdean (mediterraneoan). Guk mendebaldekoa landuko dugu, hain zuzen ere Goizuetan ditugun megalitoak mota honetakoak baitira.

Baina zertarako egiten ziren? Batzuk hilobiak ziren, beste batzuk puntu bat markatzeko, monumento as-

tronomikoak edo taldeak sendotzeko ere izan daitezke.

Hiru mota daude:

1. IRUINARRIA edo MENHIRRA.

Harri handia da, bertikalki kokatua, oinarria lurrian sartua zuelarik (monolito bat). Banaka edo taldeka ager daitezke eta harri txiki zein handiak izan daitezke. Esanahia ez dakigu, baina pentsatzen da erritoak egiteko marka izan litekeela.

2. HARRESPILA, CROMLECHA edo MAIRU-BARATZEA.

Iruinarriak zirkuloan jarriz lortzen da. Eta batzuetan harri horizontalak estalki moduan jartzen dira. Ez dakigu zer adierazten zuten; leku sakratuak izango zirela pentsatzen da, baina ez dago ziurtasunik. Oso simple edo

konplikatuak izan daitezke, egiteko zailtasun handiekin.

3. TRIKUHARRIA edo DOLMENA.

Elementurik aurreratuena izango zen bere teknika konstruktiboagatik. Harri batzuk bertikalki jarrita, hormak eratzen zituzten; gaineko horizontalak, estalkiak ziren.

Bi zati zituzten: barruko gela zirkularra eta pasaleku longitudinal bat.

Hilobi kolektiboak ziren, hilobia barruko gelan zegoelarik; pasilloa, pasabide gune bat zen hilobira iristeko. Eta batzuetan harri txikiak erabiltzen zituzten pasilloa egiteko.

Eta holako txapa sartu ta gero, zuek ba al dakizute zein diren Goizuetan dauzkagun megalitoak? Ez dakizue-nok, hasi beharko duzue mendiko bazterrak astintzen! Eta Goizuetara ezagutzen!

Kultur taldea sortu da

Ez oraintzeko nahia, helburua edo ametsa izan da herritar batzuentzat Goizueta kultur arloan suspertuko lukeen talde bat sortu eta martxan paratzea.

Orain dela urte batzuk izan zen saiakerak porrot egin zuen, baina lehengo urteko udazkenean luzatutako deialdiak ustekabeko erantzuna jaso zuen, eta geroztik, adin guztietako hamabost lagundik goiti dira elkartzen direnak. Beraz, kultur taldea bada herrian eta gogor ekin dio gainera lanari.

“Azaro kulturala” izenarekin baitaiatutako kultur zikloarekin eman zen ezagutzera taldea, eta esan behar

da, lanean jarraitu ahal izateko animoak jasotzeko balio izan zuela, jendeak erantzun ederra eman baitzien antolatutako ekitaldi guztiei.

Bilerak dinamikoagoak eta eman-korrakoak izateko asmoz, gai desberdinak landuko zituzten hiru taldetxotan banatu zen bere garaian jendea. Talde hauetako baten fruitua da irakurtzen ari zaren aldizkari hau. Beste biak ere aurreratu dituzte dagoeneko eskuartean dauzkaten lanak. Honek esan nahi du, azken orduko arazoak sortu ezean, ondorengo hilabeteetan Goizuetako hainbat argazki, kontu eta abarrez osatutako katalogotxoan argitaratuko dela alde batetik. Beste-

tik berriz, gaur egun herrien berri mundura zabaltzeko hain garrantzitsua den Web orria izanen du gureak ere.

Kultur talde honek lotura estua du udalarekin. Kultur zinegotzia eta Euskara Zerbitzuko Teknikaria burubelari ari dira lanean, eta orain arte egindakoak bezala, aurrerantzean burutzen diren proiektuek ere bi erakunde hauen finantziazioa beharko dute, taldeak ez baitu oraingoz diru iturri propiorik. Bukatzeko esan dezagun, kultur taldeak irekita segitzen duela eta lerro hauek irakurritakoan norbait animatzen baldin bada, gustora hartua izanen da gure artean.




Azaro kulturalaren barranean egindako ekitaldi bat, Pello Zabalen hitzaldia hain zuzen.



6

txoko-sex



Xirri-toki bila

Zeineri ez zaio pasatu, gau batean, mutil edo neska bati arri-matu eta berotasuna nabaritu-ta, txokora joan behar izatea? Edo gaztetan, koadrilakoen laguntzaz zita planifikatu horietako batera joan izana?

Garai batekoak ala bestekoak, denetan ikasten da zerbait eta baita ongi pasa ere! Beno, ongi-ongi, urduritasunak, alkoholak, drogak... pasada txarrak egin izan dituzte eta situazio inkomodoetara eraman ere bai. Baina berotasun momentua, alkohola, droga, situazio inkomodoa bezalaxe, pa-

sa egiten da. Eta hurrengo batean berriro ere pertsona hori ikusi, tomatea baino gorriagoa jarri eta sekula pasatu ez duzun bezalako lotsa pasa eta pentsatzen duzu "ez nazala ikusi, mesedez, a ze lotsa!"

Baina zoritxarrez zure desioa ez da betetzen eta gerturatu egiten zaizu hainbeste deseaten baina hurbiltzea lotsa ematen dizun pertsona hori. A! Eta pozez egon beharko zenuke bestea ez delako zu bezain lotsatia, eta berari esker muxu bat ematera aurreratu zaizula eta horrek laztanak, uki-tuak, igurtziak eta auskalo zer gehia-

go ekarri dituelako. Eskerrak, zeren leku bila hasi zarete Goizuetan barrena, xirri toki bila hain zuzen ere.

Baina nora joan? Dударik gabe, kanpotarrak izanik, kotxez etorritz gero, aparkatutako lekuan bertan aritu daiteke. Baina bertakoak garenok, zailxeago daukagu, izan ere beti sortzen baita duda hori, bai, alegia norbaitek ikusiko zaituen duda hori, izan ere 1.000 begi baitaude zuri begira 2 zirela uste zenuenean. Eta are okerrago hurrengo goizean, zure kotxea halako lekuan ikusi duen norbaitek galdetzen dizunean: "Ze, atzo zure ko-

txea landako hortan ikusi nun. Ze ai ziñan?"Ezin baita hurrengo eguna lasai-lasai pasa, enrollatu eta inork deus esan gabe! Putada ederra da ba denak galdezka edukitzea!

Baina hala ere, Goizuetarrok koxeaz gain badauzkagu leku gehiago xirrian aritzeko; hortaz goazen hori aztertzea.

Leku horietako bat, PASEOA dugu. Orain akaso gutxiago joaten da jendea, zeren orain urte batzuk, obretan zeudenean, nik uste leku aproposagoa zela adreilu eta aldamio tartean, burriak alde batera eta bestera mugitzen direlarik, hautsak guztiz harrotuz. Ez al da gainera pixka-bat erotikoa? Probatu nahi baduzue berandu zabilzate zeren aspaldi bukatu ziren obra horiek. Hortaz beste leku baten bila hasi beharko. Esaterako, FRONTOIA. Toki ilun eta ixila. Eta bankuak ere baditu, hori bai, nahiko hotzak. Baina beno, ez dut uste hori arazo izango denik, bata bestearen gainean jarrita segituan berotuko baitzarette. Hori bai, kontuz ateratzen dituzuen soinuekin, ekoa dela eta kaltetik igarotzen den baten batek entzuten bazaituzte susto ederra eramango du eta.

Hala ere toki beroago baten bila bazabiltzate, Gaztetxea baino leku aproposagorik ez duzue. Bertan aulki, sofa txiki, luze eta sofa-kamak ere bai baitaude. Ambientatzeko musika pixkabat jar dezakezue, baina zinta zeuek eraman, bestela rock, heavy edo bakailoarekin konformatu behar. A! Hori bai, seguruenik jendea topatzeko aukera duzue Gaztetxera joaten bazarete edo bestela atean itxirik topatzeko dituzue. Hortaz, hobe izango da beste leku diskretoago bat bilatzeta, esaterako, GOIKO ITTURIA. Hor, seguru ez zaretela inorekin aurkituko. Ilunpean, zuhaitzez inguratutako txorien soinuaz (edo deskuidatzen bazara, kukuarenaz); eta egarrituz gero, ondo-ondoan, iturri eder bat. Zer gehiago eskatu? Bai-bai, badakit, nahi-nahi, nahiagoko genuke izugarritzko ohea, kalefazio edo aire kondizionatua (garaiaren arabera),



musika, belak, eta zergatik ez, eskatzen hasita, dena primeran egiten duen bikotekide perfektu bat (edo bi?). Baina dena ezin da gazteak! Eta horretarako daukagunarekin konformatu beharko zeren sexuaz gozatzeko ez baita bikotekidea besterik be-

har. Hortaz badakizue, kaña sartu eta sexuaz a tope gozatzea!

A! Eta ahaztu baino lehenago, ez ditugula Goizuetako xirri toki denak aipatu, horiek, zeuek deskubritu beharko dituzue eta! (ez baduzue dagoeneko gin behintzat).



Goizuetako suhiltzaileak eta ambulantiako laguntzaileak

1 997 urtean Goizuetan borondatezko suhiltzaile taldea osatu zen, 25 lagunekoko talde bat hain zuzen. Talde hau sortu aurretik herriko jendea bera arduratzen zen sua zenean hau itzaltzeaz. Su-ekzilak entzunez gero halako tristura sumatzen zen herri inguruan: non ote da sua? Zer gertatu ote da? Norbaitek eman ote dio? Ongi ote daude denak...?

Ezbehar bat baino gehiago ere gertatu izan da, eta hori arrazoi nahikoa da suhiltzaile talde bat sortzeko. Ez dira profesionalak, baino beharrezko ikastaroak egin ondoren, nahiz eta borondatezko suhiltzaileak izan, lan berdina egiten dute eta gainera profesionalak dituzten baino erekurtso gutxiago izanda.

Dirulaguntzak lortu ziren suhiltzaile izan nahi zuten haiek prestatzeko, jantzi egokiak lortzeko, eta abar. Baina hemen inork ez du kobratzen lan hau egiteagatik. Ez suhiltzaile ez eta A.T.A.kedo ambulantiako laguntzaileek ere.

Aurtengo azaroan egin ditu bi urte Goizuetara ambulanzia ekarri zutela. Hau ekarri aurretik 11 lagun prestatu ziren hau martxan jartzeko. Hauetako batzuek, ambulantiako laguntzaile izateko prestaketak egiteaz gain, ambulantiako gidari izateko karneta ere atera zuten.

Nafarroan, Goizuetaz gain, Bera, Lesaka, Leitza, Aos, Izaba eta Luzaiden daude borondatezko suhiltzaileak eta hauetatik ambulanzia "medikalizablea" duen herri bakarra Goizueta da.

Anbulanzia martxan edukitzea ez da lan erraza izan borondatezko herritar hauentzat. Urte eta erdian 11 lagunetatik, arrazoi ezberdinak direla eta, sei lagun bakarrik gelditu ziren aste eta asteburu, eguneko 24 orduetan guardia eginez. Ez da harritzekoa behin eta bestetan ambulantiari baja eman beharra izatea.

Hau dela eta jende gehiago prestatzeko deialdia luzatu zen. Bai ongi erantzun ere. Beste 11 lagun eskaini

ziren lan horretarako. Gaur egun 17 A.T.A. (ambulantiako laguntzaile) daude herrian. Hauetako hiru ambulantiako gidabaimena ateratzeko prestatzen hasiak dira dagoeneko eta horretarako Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat emango die. Honez gain jantziak, materiala, ibilgailuen mantentzea eta aseguruetakoa laguntza jasotzen da.

Gainera, ikusiz zer nolako jarrerak erakutsi duten herritarrek proposamen hauen aurrean, suhiltzaileen partea handitzea erabaki da.

Zaindu ditzagun gure herri eta inguruak, ezbeharrik gerta ez dadin. Horretarako sua piztu baino lehen arriskua kontuan izan eta behar diren neurriak hartu. Denok eskertuko dugu, pizten duenak eta itzali behar duenak.


GOIZUETAR GUZTIEN PARTEZ ESKERRIK ASKO LAGUNTZA HAU EMATEN DUTEN HERRITARREI

EZETZ ASMATU

Aspaldiko argazkiak dituzu hemen eta, tartean, goizuetar ugari. Egia da urteekin itxura aldatu egiten dela eta janzkerak berak jendea aldatzen duela. Baina horixe da ariketa edo joko honen zailtasuna eta meritua. Helduentzat eta zaharrentzat errazagoa izan da, jakina, aspaldikoak direlako argazkiak, eta gaztetxoentzat zailagoa, ziur asko. Nolanahi ere, aurpegiko ezaugarri batzuk betirako izaten dira eta beste batzuk seme-alabei pasatzen zaizkie; beraz, honen sudurra dela, haren begiak, edo auskalo zeren laguntzaz, ea asmatzen duzen argazkietako jendea zein den.

PERTSONAIA EZKUTUA

Nor ote da? Ezagutu al duzu? Ez? Lehendabiziko begi kolpean ez duzula asmatu? Lasai, argazkian agertzen denak berak ere ez du asmatu-eta! Zoritxarrez, ariketa honetan ez dugu soluziorik ematen, zerorrek asmatu beharko duzu nor den. Baina ez pentsa ariketa zuek eretzeko jartzen dugunik, ez noski. Besterik gabe, gure irakurleon adimena eta begia zorrozten lagundu nahi dugu, denon hobe beharrez. Ah, eta ez zaitez kexatu, hurrengo aleko "pertsonai ezkutu" zu izan zaitezke eta.





Arantxa Loiarte Narbarte

Amerikar goizuetarra edo goizuetar amerikarra?



Gurasoak goizuetarrak dituen arren, Ameriketako Downey hirian jaio zen. Garai hartan ohikoa zen bezala, bikote gazte hura zerbait hobea aurkituko zuelakoan abiatu zen ozeanoz bestaldera. Hala ere, sus-traien bila edo, Goizuetara etortzeko gogoia sartu zitzaion gure Arantxari. Izan ere, gurasoak beren jaioterrira ahal zuten guztietan etortzen ziren eta alabak, herrixka honen xarmak-edo erakarrita, halako batean, hementxe gelditzea erabaki zuen. Euskaraz ederki dakienez, beste hainbat gauze-kin batera, hor dabil bertako euskaldun peto-pe-toei ingelesa erakutsi nahian. Nola lortzen ote du? Zer moduzkoak ote dira hemengo ikasleak? Hurrengo galderen bidez lortuko dugu informa-zio hau eta askoz ere gehiago.

FITXA:

- **Jaiotze-data:** 1975-03-11
- **Jaiolekua:** Los Angeles
- **Bizitokia:** Downey 21 urte arte eta orain Goizueta
- **Ikasketak:** Filologia Hispanicas
- **Lanbidea:** "Elkarrizketa laguntzailea" izeneko bekaduna eta ingeleseko klaseak
- **Zaletasunak:** juerga, paseoa, zinea, lagunekin egotea, dantza

MOTZEAN:

- **Oporretarako toki bat:** Los Angeles
- **Bizitzeko toki bat:** Goizueta
- **Musika talde edo abeslari bat:** Celine Dion
- **Animalia bat:** ez zaizkit asko gustatzen
- **Kolore bat:** granatea
- **Liburuak edo zinea?** Zinea
- **Telebista edo irratia?** Telebista
- **Hanburgesa edo baberna gorria?** Biek
- **Ingelesa amerikanoa, Ingalaterrakoa, Australiakoa... Zein nahiago?** Amerikanoa
- **Zer da errazago, ikastea edo irakastea?** Ikastea
- **Klasetan umeei gehien errepikatu beharrekoa:** listen, please listen
- **Amerikar lagunak euskaraz hitz egiteko eskatuta esaten diezuna:** Kaixo, zer moduz, eskerrik asko



Arantza bere senide batzuekin

• Noiz etorri zinen aurreneko aldiz Goizuetara?

Aurreneko aldiz lau urtekin, gurasoak etortzen zialako. Lau urtetik lau urtera etortzen saiatzen zian beti.

• Oroitzen lehen impresio hartaz?

Ez, hain ttikia nitzan! Gero, zortzi urtekin etorri nitzaneko hartaz bai. Hainbeste lehengusu eta hainbeste lagunekin, arrunt politta izan zela oroitzen naiz.

Hamaika urte nittunen izan zen hurrengo bixita ta bi anaiekin etorri ni-

tzan. Hortik aurrera, hamabi-hamahiru urtekin hasi ta hogegei urte arte, bakarrikan etortzen nitzan. Lanen aritzen nitzan umek zaintzen asteburrun, propio, dirua lortu ta honara etortzeko.

• Non bizitzen zineten orduan?

Hasieran, izeba Julitakin-ta Pas-koltzenen bertan. Gero, beste etxera bizitzera jon zianen, bakarrik, oan bezala. Ta batzutan, beldur pixkot e bai etxetzar honetan! Bino ohittu naiz dagoeneko.

• Zer zen, garai hartan, hemen gehien eta gutxien gustatzen zitzazuna?

Gehina, etxetik atere ta, lasai erren bakarrikan ibili ahal izatea, lagun ta lehengusu pila bat eduki ta seittun juntatu ahal izatea. Herri guztitik libre ibiltze hori. Han zure jardinen egotten zinan, bino handikan atetzeko dena kotxen. Ta gutxina? Ez dakit. Ordun dena gustatzen zian-ta!

• Eta orain? Zerbait aldatu al da hau eta hura ikusteko modua?

Momentu batzutan pixkot asperetzen zala, akaso. Astez jendea gero eta gutxio atetzen da, lanangatik-ta normala den bezala. Bino bestela, oso gustora.

• Nola erabaki zenuen hona bizitzera etortzea?

Betitik nun pentsatua. Etortzen ni-

«Hemen gehien gustatzen zitzaidana, etxetik atera ta lasai erren bakarrikan ibili ahal izatea. Herri guztitik libre ibiltze hori. Han zure jardinen egotten zinan, bino handikan atetzeko dena kotxen»

tzanetikan esaten nun gustatuko lidakeela hemen bizitzea. Akaso, ez nun uste errealitatea izanen zenik, bino gero, probatu behar nula esan ta egin.

“Filologia Hispanicas” ikasten ari nitzala, 3. mailan kanpora ikastera joteko aukera eman zigten. Donostira etorri ahal nunez ta Goizutan etxea izaki, honara etortzea erabaki nun. Urte guziko egongo nitzan gainera, ta esaten zidatena probatuko nun; ez zela berdin uda ta negua hemen, negun aspertuko nitzala... Etorri nitzan, erki pasatu nun urtea ta, nik uste, ordun erabaki nula hona etortzea.

• **Hasieran etsiko etortzea pentsatzen zenuen? Orain?**

Bai, hori esaten nun. Lana harapatzen saiatu nahi nun tenporada baten hemen gelditzeko. Bino, betiko? Familia han daukiala oroitzen naiz... Oangoz ez dut bueltatu behar, bino oandik ere esaten dut aukera hori baduala badakiala.

• **Heather eta gainerako lagunek zer esaten zuten?**

Goizutan egon nitzan aurreneko urte hura Heatherekin pasatu nun ta gero, unibertsitateko laugarren urtea han, pisun elkarrekin egonez. Horregatik, izugarrizko pena. Esaten zidaten pozten ziala nik nahi nuna egitteagatik, bino...

• **Zer zen faltan gehien botatzen zenuena?**

Familia ta lagunek aparte, tarte-ka, janaria. Batzuk esanen dute: “Erotu da hau! Han dena txarra da ta!” Bino niri, aukera hori (txinoa, india...) asko gustatzen zit. Hemen gutxio do.

Bino gogorrana, lagunekin harremana galtzea. Nahiz ta hasieran deittu, idatzi... gero harremana gutxituz joten da, zaila da mantentzea. Familikin askoz ere gehio egoten naiz, telefonoz askotan.

• **Ze ezberdintasun nagusi nabaritu zenuen handik hona?**

Bizitzeko modua. Han denek la-

«Handik hona ezberdintasun handiena bizitzeko modua. Han denek lanari inportantzi asko ematen diote. Hemen ere bai, bino han askoz gehio. Han prisaka bizi dira ta hemen lasaio»



Arantza, erabateko goizuetarra

nari inportantzi asko ematen diote. Hemen ere bai, bino han askoz ere gehio. Han prisaka bizi dira ta hemen lasaio. Ordun, lasaitasuna nabaritzen dut hemen, Goizutan batez ere.

Paisajea ere diferentea da, han hirin bizi nitzan ta. Kanpora atzekon ere izugarrizko aldea nabaritzen da; han beti lagunekin ibili beharra da, bakarrik inora ez, hemen bakarrik, arriskuik gabe, lasai ibiltzen zan bittarten.

• **Gustora egon al zinen hasiera hartan?**

Bai, lehenotik etortzen nitzanez lagunak banittulako. Momentu batzuk gogorak izaten dira, bino hori normala da. Batzutan, aspertu edo hango jendea faltan botzen nittulako, momentu txarrak pasatu nittun, bino oan oso ongi.

• **Zer egin zenuen, ikasi, lanera segituan...?**

Lehen esan dudan bezela, han karrera bukatu nun, ekainen. Uztailen etorri, irailen lan-entrebista in zidaten ta urrin klasek ematen hasi nitzan, Hernaniko akademian.

• **Zer moduzkoak dira goizueta-rrak ikasle modura?**

Ja, ja! Denetik! Ez, generalen ongi. Batzuk saiutzen dira ta bestek gutxixio. Umetan nabaitzen dudana da gogoa, akaso, oan erakusteko erabiltzen den modungatikan (jokun bidez...). Ta maila nahiko ona dute.

• **Inoiz damutu al zara hona bizitzera etorri izanaz?**

Ez, damutu ez.

• **Orain, alderantziz, harako bidaia egin behar izaten duzu.**

Bai, udan bi hilabete pasatu nittun ta hurrena Eguberritan jon nahi dut. Familia ere etortzen da. Txandaka ibiltzen gara, ahal dugun bezala moldatuz.

Azken egonaldian denak banittun: anaiaren ezkontza, ilobaren bataioa... Lehengusuk-eta jon zian ta California, Las Vegas... dena jitu ginun. Arrunt ongi pasatu ginun.

Herriko Etxe zaharra, konpondu baino lehen.



Herriko Etxearen historia

Herriko eraikuntza zahar guztiek badute beraien historia inolako zalantzarik gabe. Hor-tik kontuak atera Herriko Etxearen inguruan zenbat bitxikeri azaldu litezkeen artxiboetan begiraturuz gero.

Herriko Etxe berri bat eraikitzeko behar izugarria zegoen 1762. urteko Udalbatzaren ustetan, baina gaur egun gertatzen den bezala, orduan diru arazoak zeuden horretarako. Beraz, zerbait egin behar eta, ondorengo bi urteetan indarrean egonen zen "sisa" edo zerga paratu zioten ardoari.

Handik sei urtera, 1768an, herrian bizi ziren guztiak eraikuntza berriaren lanetan parte hartzera behartzen zituen bandoa kaleratu zuen udalak, soldatarik gabe gainera, mantenu truke soilik. Urte berean hasi ziren zimenduak ateratzen, eta 1769ko ilbeltzean eman zion oniritzia "Real Consejo" zelakoak Manuel Munoa donostiarrak egindako proiektuari. 1771ean bukatu ziren lanak.

Herrira ailegatzeko ziren bi-

daiarientzat mesoi edo ostatu, eta beraien abereentzat sotoak ere prestatu ziren Herriko Etxe berrian. Lan hau errentan hartzen zuen nahiko garrarra eta lastoa eduki behar zuen abereentzat, ez baldin bazuen behintzat bi dukadoko isuna jaso nahi janaririk ez zeukan egun bakoitzeko.

Ondorengo ia ehun urtetan ez da Herriko Etxeari buruzko garrantziko aipamenik, baina 1864an hondamendi ikaragarria gertatu zen, goitik beheraino erre baitzen hainbeste kostatako etxe ederra. Hala ere, zorigai-

tza zorigaitz, pozik azaltzen ziren orduko agintariak herriko artxiboa su artetik salbatzea lortu zelako "por medio de una abnegación sin igual y de repetidos actos de un valor heroico".

Udala eta herriko hogei jauntxoan artean 30.000 erreale bildu zituzten etxea berriz eraiki ahal izateko sutea gertatu eta handik hamar egunera baino lehen. Aurrekontua 86.000 errealekoa zenez, 56.000 erreale eskatuz idatzi zion gutuna Udalbatzak erreginari.

Nola edo hala berriz ere behintzat etxea eta jakin badakigu eskola ere bertan izaten zela, 1913an Zubimusu egin zen arte.

Herritar guztiok ongi dakigun bezala, azken hilabete hauetan hain apain eta eder ikusten dugun eraikin honek urte asko igaro ditu egoera negargarrian. 320.000 eurotik goiti kostatako lanak bukatuta koan, 2002ko otsailaren 23an inauguratu zen Herriko Etxe berritua, ganbaran kokatzen den kultur areto eder eta guzti gainera.



Herriko Etxe berrituaren inaugurazioa, 2002ko otsailaren 23an.


Ostirala ilunabarra da eta herrian zehar jende gehiago egoteko aukera dagoenez, kanpora irten gara bi galderatxo egiteko asmoz. Ez dira galdera zailak baina ez dakigu inor aurkituko dugun erantzungo digunik. Kale nagusitik behera abiatu gara eta jendea ikusten hasi gara, gelditu eta galderak egiten ditugu baina argazkitxo bat ere atera behar dugula esatean askok ez digute erantzun nahi. Batzuk ez dakite nola erantzun, serio edo "katxondeon", eta aurpegi arraroarekin begiratzen digute. Beno, nola nahi dela ere, jende frankok erantzun dizkigu galderak eta erantzunak honako hauexek izan dira.



GALDERAK:

1.- Mundua ezagutzen al duzu?

2.- Non dago "Punto G"?



MAITENE APEZTEXEA:

- 1.- Dena ez.
- 2.- Ez dakit ba nola esplikatu, pertsona bakoitzak leku diferentean.




JOSE MARI ZUBIRI:

- 1.- Gutxi.
- 2.- Nik zer dakit non den Punto G.



AMAIA HUIZI:

- 1.- Ingurukoa.
- 2.- bakoitzak ahal duen tokian, ez dakit zer den hori baina.



LUIS LUJANBIO:

- 1.- Pateatua ez. Argazkiz bai.
- 2.- Ez dakit, baina uste dut erdialdean.




JUANITO ZABALETA:

- 1.- Dena ez, parte bat.
- 2.- Zaila, baina ez dut hanka sartu nahi.




ELI APEZTEXEA:

- 1.- Ez.
- 2.- Plazerra, gustua ematen dun lekuan (parra egiten du).




JOSE JABIER AIZKORBE:

- 1.- Bai, borobila da.
- 2.- (N.P.I.). Ez dut erantzun nahi. Zuk nik baino hobeki jakingo duzu.




URTZI GARZIA:

- 1.- Bueno, pixka bat.
- 2.- Pototan




JOSE LUIS AROZENA:

- 1.- Pixkot.
- 2.- Ez dut ideiarik ere.




IÑAKI LOIARTE:

- 1.- Ez.
- 2.- Gorde gordean.




MARI JOSE NARBARTE:

- 1.- Bueno, behin baino gehiagotan herritik atera naiz, Ingalterra, Irlanda, Italia, Hego Amerika, Miranda, Bizkaia, Ogeta pilota plaza...
- 2.- Hankan aspikoa oraindik ez dut ezagutzen, bestea bai.



JOAKIN LOIARTE:

- 1.- Mundua, jaio ezkeroztik.
- 2.- Oraindik ez diot igarri.



ALEX SALABERRIA:

- 1.- Goizueta, Hernani eta hortik aurrera gutxi, eta Urrutine.
- 2.- Mingainean (parrez erantzuten du).



AXIER LUJANBIO:

- 1.- Ez.
- 2.- Nik nahi baino urrutia-go.





“Dani, gazte independentea”

D enoi gustatzen zaigu independente izatea, gure pertsonaltatearen garapenerako beharrezkoa baita zeure burua inoren laguntzarik gabe aurrera ateratzeko garaian, batez ere arlo ekonomikoari dagokionean, izan ere gaur egun ongi ordaindutako lan gutxi daude eta aldi berean gazte gehienek ezin dute pisu alokairuagatik eskatzen den diru kopurua ordaindu.

Goizuetar gazte bati egin diogu elkarrizketa, bere esperientziaren berri eman diezagun.

- **Nola antolatzen duzu etxeko garbitasuna?**
“Kablek kruzatzen” zaizkidanean garbitzen dut etxea.
- **Gida praktikoa bat etxeko lanetarako.**

Garbitu, lehortu eta plantxatzen duten makina automatiko bat oparitu didate erregeek. Bere izena “Milagros” da.

- **Astean zenbat aldiz jaten dituzu makarroiak?**

Otordu erdiak makarroiarekin egiten ditut, baina horretaz gain baberna, lentejak eta gauza gehiago prestatzen ere badakit.

- **Gastu handia al dakar independizatzeko?**

Moldatzeko modukoa, nire kasuan behintzat.

- **Zergatik zaude alkilerrean eta ez pisu bat erosi?**

Goizuetan, zoritxarrez, inork terrenorik saldu nahi ez duenez, ez dago etxerik egiterik, beraz, ezta saltzeko ere. Hau etokizuna!!

- **Zure ustez, gazte batek, ze gutxieneko baldintza bete behar ditu etxetik joateko (ekonomikoki, moralki ...)?**

Ekonomikoki, soldata “fijo” bat, eta moralki berriz, uste dut ia gazte guztiak prest gaudela gure kabuz bizitzeko.

- **Zuk noiz eta zergatik alde egin zenuen gurasoen etxetik?**

Orain dela urte bete joan nintzen; arrazoa da, gurasoen etxean egin ezin nituen gauza asko egin ditzake-dala orain. Intimitatea, azken finean.

- **Alkilerrean zaudenetik, gauero bakarrik egin al duzu lo?**

“Bai, to!!” Badakit kalefazioa bilatzen!!!

Argi dago Daniren kasua ez dela egokiena gaur egungo gazteei arlo honetan jartzen zaizkien mugak salatzeko. Mutil honek zortea izan du etxetik ateratzeko garaian, baina beste milaka gazte daude nahi eta ezinean. Zer egin egoera hau aldatzeko?

Aimar Olaizola abenduaren
29an 4^{1/2} ko txapelketa
nagusia irabazi ondoren



zure txokoa

“Goizueta bizirik”
plataformako
kideek argazkia
bidali dute “Xapo”
aldizkarira. Sortu
berria den
taldeak, euskal
herriari eta
Goizuetari bizirik
eusteko lan
egiteko asmoa eta
borondatea duela
adierazi du.



Gazte hizkera

Zer da?

Gazteak haur izateari utzi eta heldutasunerako bidean doanean, aldaketa asko bizitzen dituela jakina da. Aldaketa-garai hori hizkuntzan ere adieraztean, gazte hizkera deitzen duguna sortzen da.

Gazteen nortasun propio hori beren hizkera berezi batekin aldarrikatu nahi izaten da, hizkuntza guztietan ikusten denez. Gaztelera, adibidez, argi ikusten da gazteek beren artean erabili ohi dutena ez dela helduek darabiltenaren berdina. Gazteek erabiltzen dituzten hitz eta esamolde batzuk beraienak dira bakarrik eta horiek izanen dira gazteen hizkeraren ezaugarritzat hartuko ditugunak.

Euskaraz, ba al dago horrelakorik?

Batzuek baietz esaten dute, baina arazo batekin: nagusitu zaion eredia erdaratik hartua dela, gaztelaratik (Hegoaldearen kasuan) kalkatua, erdarakadaz betea.

Honengatik pentsatzen dute beste batzuek egitazko euskal gazte hizkerarik ez dagoela, gure gurasoen hiz-



- Hori igokundea!

-Hori igokundea (subidon edo subidoia esan beharrean)!



- Hau azkurea! Atere auro argazkia!!



-Hau azkurea (erdarazko rasca dauka buruan)! Atere auro argazkia!

keratik bereizten duen ezaugarriekin. Izatekotan, "euskañol" gazte hizkera edo, okerrago, erdal gazte hizkera edukiko genuke. Izan ere, jarraian ikusiko dugu nolakoak diren, gutxi gorabehera, gazteek erabiltzen dituzten "esamolde desberdin" horiek.

Baldin badago, nolakoak da?

- Hala, tío.
- Que fuerte, que chungo (kasurik hoberenean, "bai fuertea!" edo "bai txungoa!").
- Jode, chaval / tío.
- Ay la hostia, no jodas, es que (hauek, agian, helduek ere erabiliko dituzte).
- Dónde vas, chaval.
- Superguay, super, guay.

- Sí, ¿no?
- En plan de...
- Si nik hori badakit ("nik hori badakit-ta" esan beharrean).
- Raiatua egotea (nazkatua egotearen antzeko zer bait), raiantea...
- ...

Adibide hauek ikusita, gazte hizkeraren gatza edo bixitasuna erdal hitz eta esamolde hauen gisakoekin lortzen dugula esan dezakegu. Hauen bidez esan nahi dugunari indarra ematen diogu. Horrelako pare bat segidan esatea, ordea, nahikoa da gazteleraz ari garenaren itxura emateko. Barra-barra erabiltzen ditugun "benga", "animo", "bueno" edo "pues" bezalakoak gaineratuz gero, zer esanik ez!

Adibide hauek baino askoz ere gehiago badaudela badakigu, baina

gehien erabiltzen ditugunak paratu ditut. Gainera, horietako batzuk ez dituela esaten pentsatzen duen gazte goizuetarrik ere egonen da ("superguay" ren gisakoak ez dira hemen asko entzuten, adibidez). Baina besteak bezalakoak asko (gehiegi) erabiltzen direla norbaitek ukatuko al luke? Eta horiek erabili gabe gazteak ezin duela hitz egin dirudiela? Horietaz gain, gazteek bakarrik erabiltzen duten hitzen bat badagoela inork pentsatzen ote du? Euskaraz edo erdaraz? Hala bada, norbait horrek badauka lana, Xaporen hurrengo atalean bere iritzia edo idatzia hartzeko esku zabalik egonen baikara. Baina, lasai, urte bete inguru baduzue-eta!

Bestalde, argi dago esapide horietako asko erdarazko "takoak" direla. Izan ere, hau da euskaldunei espaino-

lek esan ohi digutena: "Zuek ez omen daukazue takorik, ez?". Hain finak ote gara ba euskaldunak? Honetan ere, gaztelerak irabazi ote digu?

Helburuak

Hemen ez gara "supersoluzioak" ematen saiatuko. Gehiegi "enrollatu" gabe, oinarrizkoena edo inportanteena dela uste duguna esanen dugu:

1. Sentsibilizazioa.

Horrelako hizkerari (haur hizkera, lanbideetako hizkerak...) zor zaien garrantzia ematea da aurrera egiteko

funtsezko pausoa. Izan ere, ez gara konturatzen zenbaterainoko mesedea egiten duen egoera bakoitzean, esan nahi dena esan nahi den bezala esateko baliabide aproposak edukitzeak. Geure buruari begiratu, halakoak baditugula eta moldatzen garela pentsa dezakegu. Baina, arrunt urruti joan gabe, zergatik mintzaten da hainbeste gazte, euskaraz bikain jakinda, erdara hutsez?

Beti hizkera bera erabili beharrik ez dago, beraz. Adibidez, Euskara Batua ez da leku eta egoera guztietan erabili beharrik, gure euskalkiaz edo momentuan gaudeneko pertsonen ahaztuta (haur txiki bati "txango bat

egitea plazer zenuke?" esanez gero, zerbait ulertuko ote du?).

2. Euskara zuzena egitea.

Pedantekeriez ahaztu bai, baina euskara txarrak ez egiteaz oroitu beharra dugu. Hau daukagu azpimarratu beharrekoa, euskara zuzena egitea lortzen badugu hain gaizki ere ez baikara egonen! Hori nola lortu, ordea?!

3. Gazteleraren eredia baztertzea lortzea.

Aurreko bi puntuak betetzera iritsita bakarrik lortuko dugu erdal eredia baztertzea. Hauxe izanen litzateke helburu inportanteena.




-Aizak, osaba: Gustatzen al tzik izaba hori? -galdetzen dio artikulu hau irakurri eta gazte hizkera jator eta euskaldunean mintzatu nahi duen gazte batek lagun bati. Lagunak, "despistatu" samarra izaki eta ez du deus ere ulertzen. Jendea "euliztatzeko" bide aproposa izan daiteke.

Gaurko menua

Hemen azaltzen dizuegu otordu goxo, goxo bat prestatzeko aukera. Lehenengo eta sarrera moduan **TUTERAKO KUKULUAK** ("Cogollos de Tudela"). Juan Ignazio Apezetxeak azaldu digu nola prestatzen diren. Prestatzen lan gutxi daukate eta oso goxoak dira. Bigarren, **KONEJUA BARATXURIEKIN** eta honekin batera eta aprobetxatuz **KONEJUAREN GIBELA** (Anjel Elizegik prestatu eta azaldu digu nola egin).

Postrea zuen esku gelditzen da, seguru zuen mahaikideak oso pozik geldituko direla, gainera edari goxo baten laguntza baldin badaukate askoz ere hobe. **DISFRUTATU ETA ON EGIN.**




KONEJUAREN GIBELA

OSAGAIAK

- GIBELA
- TIPULA
- OLIOA
- GATZA

PRESTAKETA

Olioia zartarian jarri. Tipula zati txiki-txikitant egin eta olioari gehitu eta beratu. Ondoren gibela zati txikitant bota eta frijitu. **ON EGIN.**



KONEJUA BARATXURIEKIN

OSAGAIAK

- KONEJU 1
ETA 1/2 GATZA
- 5 BARATXURI
ALE
- 2 BOTILA
ZERBEZA
- OLIOA

PRESTAKETA

Konejua puskatu zati txikitant. Olioia berotzen jarri baratxuri ale batekin. Gero konejua bota kazolarara eta bi aldetatik gorritu. Konejua ia egina dagoenean, baratxuri puskatua bota. Baratxuria egina dagoenean bi botila txiki zerbeza bota, pixka bat eduki, bi minutu-edo, eta labean sartu, 8 minutu gutxi gorabehera 200 gradutan. Eta azkenik **ATERA ETA JAN.**



TUTERAKO KUKULUAK

OSAGAIAK

- 5 KUKULU
- LATA 1 ANTIXOA
- LATA 1 ATUN
- GATZA
- OLIOA
- OZPINA

PRESTAKETA

Kukulua garbitu ongi, ongi. Lau zatitan egin. Aurrena olioia bota eta gero gatza eta ozpina. Atuna eta antxoak jarri modu txukunean. Platera polita eta goxoa geldituko zaizue.

Txikiteolariak

non?



Nork ez ditu ezagutu kalean zehar, tabernaz taberna txikiteoan dabilzan tripotak. Goizean hasi, eguerdian jarraitu eta ilunabarrarte aguantatzen duten bertsolariak. Beraien aurpegiko aztarna errioxan lekutzen zaiena eta gainera sortzen duten efektua kolore gorridun sudur eta masailetan antzematen zaiena. Non daude euskaldunon oittura zarrak? Amajiñabat etxe-ko andreek buruko min latzak jasotakoek, gazteen artean oittura

hau galtzen ari dela ikusirik, algara ederrak botako dituzte bai! Onerako edo txarrerako, badaude oraindik gure herrian, gizonezko gutxi batzu, eguneko ibilbideari jarraitzen diotenak. Hala eta guztiz ere, nolatan ez ote dute gure herriko gazteek oittura zahar hau erabiltzen? Lagunarteko harremana asko mugatu delako? Edaria garesti dagoelako? Pintxorik eskeintzen ez delako? Gaizki ikusia dagoelako? Edo agian "botellon" modan dugulako?!

Galdera hauetaz aparte, norberak bere erantzuna jakingo ditu seuski. Ohartzen bagara gure herrian zenbat taberna dagoen, zerbaitengatik irerkiak izan zirenak, eta orain zenbatzen baditugu zenbat dauden zabalik, nabaritutako genuke fenomeno honen kausa.

Baina lasai, gure gurasoek dioten bezala, modu honetan edo bestean herriko gazteak indarrean datoz eta! Ieup!!!

Peru

Goizuetako abizenak

Erreparatu al duzu inoiz Goizuetako abizenetan? Pentsatu al duzu inoiz zergatik diren abizen batzuk hain arruntak eta beste batzuk hain bitxiak? Zer erakusten digute Goizuetako abizenek, zer adierazten dute?

Ez dira galdera errazak, ez, eta akaso goizuetarren batek horren inguruko tesia egin arte ez dugu erantzuna ezagutuko. Baina guk unibertsitateko tesia baino errazagoa den ariketatxoa egingen dugu eta, telefonikako listina hartuta, hango abizenei erreparasotxo azkarra emanen diegu.

Has gaitzen, bada:

Etxea: ikusten denez etxea elementu garrantzitsua zen jendearen nortasunean. Ikustea besterik ez dago, listinean zenbat abizen aurki daitezkeen "etxea" osagaia dutenak:

Telletxea, Indakoetxea, Goikoe-txea, Etxegoi, Etxegia, Etxenike, Etxeberria, Etxekolenea, Apezetxea

Nafarroako geografia: ez dira gutxi, ez, Nafarroako herriren baten izena abizentzat dutenak. Hauek dira Goizuetarren artean ikus ditzakegunak:

Goizueta, Huitzi, Narbarte, Huarte, Lizaso, Aizkorbe, Berroeta, Erbiti, Erasun, Zugarramurdi, Izal, Olo, Almandoz, Zozai. Hauen ondoan, Gipuzkoako pare bat herri ere baditugu abizen artean: Bergara eta Lasarte.

Abizen beraren aldaerak: Listina hartuz gero, jatorriz abizen bera dena modu ezberdinetan emana aurkituko dugu. Gehiago badauden arren, bi hauek iruditu zaizkigu deigarrienak:

Loiarte, Lollarte, Loyarte, Leyarte, Zestau, Zestao, Zezttau

Natura: "etxea" osagai arrunt samarra den bezalaxe, naturarekin edo naturaren elementuekin zerikusia dutenak ere oso ohikoak dira:

Asurmendi, Aramendi, Larrea,

Aristizabal, Sagastibeltza, Ariztegi, Fagoaga, Aginaga, Arribillaga, Arbillaga, Aizpurua, Arriburu, Legarreta, Larburu, Iturria

Bestalde, abizenak ere beste multzo batzuetan ere bil daitezke; esaterako, bukaera berdina dutenak:

-aga: Aginaga, Fagoaga, Makazaga, Safagoaga

-buru: Larburu, Aizpuru, Arriburu

-ena: Perurena, Arozena, Mitxelena, Baleztena, Tomasena

Edota hasiera berdina dutenak:

Al-: Alba, Albistu, Alsua, Alberro, Altamira

Erdarazkoak ere ez dira gutxi:

Del Valle, San Miguel, Ruiz, Polanco, Herrera, Rodriguez, Duran, Escudero, Bakero, Gonzalez, De Anta, Marchante, Macias, Jimenez, Lirio, Nolasoyas, Maestre, Moreno, Perez, Corona, Ruano

Errepaso arina eman diogu Goizuetako listinari, baina nahi izanez gero abizenen arteko lotura gehiago egin edo bitxikeria gehiago ere bila litezke. Hori, nolana ere, irakurlearen eskutan utziko dugu, nahi izanez gero entretenimendu gisa har dezan.



Euskal Herria

ezagutzen al duzu?

Test hau egin eta erantzunak ongi samar asmatzen badituzu, ez du horrek esan nahi euskal kulturaren doktorea zarenik. Huts asko egin ez gero ere, lasai, ez duzu pentsatu behar horregatik ezjakin hutsa zarela eta ez duzula zure herria ezagutzen.

Test honek ez du balioko zure kurrikuluma osatzeko eta ez dizu diplomarik emanen, baina akaso zeure burua neurri batean probatzeko balioko dizu, edo uste zenuena baino gehiago dakizula erakutsiko dizu, edo alderantziz...edo gutxienez pixka bat entretre-

nitzeko balioko dizu, hori ere garrantzitsua baita.

Tira, hementxe dituzu Euskal Herriaren historia, hizkuntza, kultura, geografia edo beste zenbait jakingarri buruzko galderak. Ea nola moldatzen zaren:

1.- Zein izan zen euskara batuaren sorrera bideratu zuen erakundea?

- a) Eusko Jaurlaritza
- b) Euskararen Kontseilua
- c) Euskaltzaindia
- d) Arantzazuko fraideen elkar-tea

2.- Nor zen Antso Azkarra?

- a) Nafarroako Errege izandako pertsonaia
- b) Everestera igo zen lehendabiziko nafarra
- c) Karlistadan hil zuten jeneral liberala
- d) Euskarazko lehendabiziko liburua idatzi zuen idazlea

3.- Nor da euskalkien lehendabiziko maparen egilea?

- a) Koldo Zuazo
- b) Pello Zabala
- c) Jose Maria Satrustegi
- d) Louis-Lucien Bonaparte

4.- Nork deitu zion "Lingua navarro-rum" euskarari?

- a) Erromatarrek
- b) Nafarroako Erregek
- c) Francisco Francok
- d) Xabier Amurizak

5.- Nola deitzen zitzaien garai batean gure eskualdeari?

- a) Basaburua txikia
- b) Basaburua ertaina
- c) Basaburua handia
- d) Basaburua erraldoia

6.- Hauetako zein ez da Euskal Herriko pertsonaia mitologikoa?

- a) Basajaun
- b) Mari
- c) Pelaio
- d) Galtzagorri

7.- Mendi hauetako bat ez dago Nafarroan. Zein?

- a) Udalaiz
- b) Hiru Erregeen Mahaia
- c) Balerdi
- d) Izaga

8.- Non dago Elantxobe?

- a) Gipuzkoan
- b) Araban
- c) Lapurdin
- d) Bizkaian



9.- Zer da euskalkia?

- a) Euskararen dialektoa
- b) Gazta mota bat
- c) Euskarazko poesia
- d) Kirol mota bat

10.- Zein zen berriki itxi duten euskarazko egunkari bakarraren izena?

- a) Egunkaria
- b) Euskaldunon Egunkaria
- c) Euskalduna
- d) Egunkaria aurrera

11.- Zein da Axular idazle ospetsuak idatzitako liburu ezagunaren izena?

- a) Atzo
- b) Orain
- c) Bihar
- d) Gero

12.- Nork irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2003 urtean?

- a) Sustrai Colinak
- b) Xabier Silveirak
- c) Amets Arzallusek
- d) Estitxu Arozenak

13.- Nongoa da Berri Txarrak musika taldea?

- a) Durangaldekoa
- b) Larraungoa
- c) Iruñekoa
- d) Tolosaldekoa

14.- Hauetako zein herritan ez da banatzen Ttipi-Ttapa aldizkaria?

- a) Zugarramurdin
- b) Sunbillan
- c) Betelun
- d) Areson

15.- Nola du izena Iruñean emititzen duen irrati euskaldunak?

- a) Euskalerrria irratia
- b) Euskadi irratia
- c) Euskal irratia
- d) Euzko irratia

16.- Zein da Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren lana?

- a) Euskaldunak euskaraz hitz egitera behartzea
- b) Euskaldunen hizkuntza eskubideak ezagutarazi eta laguntzea
- c) Nafarroako Gobernuari aholkuak ematea
- d) Hizkuntza eskubideen inguruko liburuak euskaratzea

17.- Zein da Euskal Herriko herrialderik txikiena?

- a) Gipuzkoa
- b) Nafarroa
- c) Bizkaia
- d) Zuberoa

18.- Zenbat biztanle ditu Zuberoak?

- a) 44.000 inguru
- b) 34.000 inguru
- c) 24.000 inguru
- d) 14.000 inguru

19.- Zer da UEMA?

- a) Udalerri Elkartuen Mankomunitatea
- b) Udalerri Euskaldun Maioritariok
- c) Udalerri Ezkertzaleen Mankomunitatea
- d) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

20.- Zenbatgarren KORRIKA izan da 2003. urtekoa?


- a) Lehendabizikoa
- b) Zazpigarrena
- c) Hamahirugarrena
- d) Hamazazpigarrena

- **10etik 14era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu. Euskal Herria ongi ezagutzen duzu.
- **15etik 20ra:** fenomeno, Euskal Herria ongi ezagutzen duzu.
- **21etik 25era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **26etik 30era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **31etik 35era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **36etik 40era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **41etik 45era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **46etik 50era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **51etik 55era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **56etik 60era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **61etik 65era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **66etik 70era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **71etik 75era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **76etik 80era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **81etik 85era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **86etik 90era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **91etik 95era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.
- **96etik 100era:** tira, Euskal Herria kaleratzen ahal eginduko beharke zenuke, baina ez da hain ezagutzen gertatzen duzu.

Asmatutako erantzunak:

10.	b
9.	a
8.	d
7.	a
6.	c
5.	a
4.	b
3.	d
2.	a
1.	c

Erantzunak



Goizuetako

toki-izenak

Nork, noiz eta nola asmatu zituen Goizuetako toki-izenak? Ezin dugu erantzun zehatz eta argirik eman, baina gutxienez toki-izen askotan nolabaiteko logika ikus edo antzeman dezakegu eta irudimenaren hegalak astinduz azalpen bat ematera irits gaitezke. Horixe da, besteak beste, artikulutxo honetan egin duguna. Ez bilatu, nolana ere, azalpen zientifikoegirik hemen eta, batez ere, ez serioegi hartu.

Esan bezala, toki-izen askok tokia bera deskribatzen dute, edo gutxienez garai batean izan zena:

Larreaundi, Egiluxe, Auntxulo, Egixiki...

Irudimen edo imaginazio pixka batekin, pentsa daiteke izenak jartzeko garaian goizuetarrentzat garrantzitsuak ziren elementuak erabiltzen zizuztela. Adibidez, familia:

Aitaborro, Amonamotzeko ataka, Attonputxu, Attonamonak, Attonan meatzeko errollua, Aita-semegi.

Betalde, eta hau ezin izan dugu frogatu, sexu-harremanak jendaurrean egin ezinak hainbat toki bilatzera bultzatu zituen goizuetarrak, eta jakina, toki horiei ere izena jarri behar:

Igurtzi, Bikainborda, Larrutatxiki, Larrutaundi, Etzanleku, Zo-

koepel, Sasizabala, Otzbero, Maite zaitut, Bixtaleku, Epeleko Zokua, Epelaldea.

Toki-izen gastronomikoak edo elikagaiekin zerikusia dutenak ere ugariak dira:

Gaztañenea, Gaztarozko bizkarrara, Gatzarrieta, Bisigu, Madariko lepoa, Almendruriz, Gerezine, Piparrola, Gerezizarreta, Udarimeaka, Easporru, Piperreko erreka, Tartaxolo, Tartazu.



Beste toki-izen batzuk, berriz, erakutsiko digute goizuetarrak oso aspaldi zibilizatu zirela eta gorputza hustutzeko tokiak ere hautatu eta izendatu zizuztela:

Kakatokiko erreka, Pixatokiko erreka.

Zenbait toki-izenek goizuetarren izaera erakusten digute. Adibidez, izaera apostuzalea frogatzen digun toki-izen hau:

Altzako harria. Horren jatorrian "altxako harria?" dagoela pentsa liteke, ezta? Edo ez?

Edo nekazaritza biologikoa Goizuetan beste inon baino lehenago egiten zela. Bestela, zer adierazten digu toki-izen honek?

Biosoro (Bio-soro, alegia).

Izen bitxi askoak ere baditugu:

Zartako ukerra, Zerriurdanetako

hegia, Montefrio, Kontrako erreka, Haizerik ez duen harria, Tin-tazulo.

Eta aipagarria da, halaber, euskarazko hitz edo atziki batzuk zein emankorrek gertatu zaizkien goizuetarrei izenak jartzeko garaian. Honatx adibide batzuk:

- **Buru:** Erroilaburu, Sanjuanburu, Olaburu, Lezaburu, Aranolaburu, Lepaburu, Exkaxburu, Platanoburu, Asiskola buru, Irolaburu, Asun buru, Kuxinburu, Malkorburu, Artzango Etxaburua, Benaiko bordaburuko zokoa, Keseren bordaburua.

- **Zuloa:** Biatzumako zuloa, Braxiliren zuloa, Tintazulo, Azerizuloetako gaina, Sorginzuloko erreka, Auntxulo, Lapurzulo, Zulotako erreka, Zulotako malda.

- **Txiki:** Egixiki, Soratxiki, Kapertxiki, Larrutatxiki, Basakatxiki, Ibarrolatxiki, Beatxikiko Morria, Leitxiki bizkarra, Madariartetxikia, Enubietatxikia, Gorosketattiki, Subelepottiki, Irola txiki, Arlepoko harri txikia, Kanalettikiko lepoa.

- **Luze:** Lurluze, Arluxe, Egiluxe, Ariztiluxe, Pagadi Luze, Arriluze, Larruxe, Arriluxe, Soraluze.

- **Aundi:** Lintziraundi, Egiaundi, Zabalauendi, Olajaundienea, Mendiaundi, Erretakaundi, Buelta aundiko zokoa, Iturriaundi, Sarobe aundi, Soroaundi, Sasiaundi, Larreaundi, Madariarteundi, Enubietaundia, Pasabidegi aundia, Maldaundi, Paretaundi, Errekaundi, Arriaundi, Gorostin aundia, Arrandi, Sagarraundi, Zelaiaundi.

Ba al dakizu zein den donostiarren mixeria?

URTEAN BEHIN JOTZEN DUTELA, ETA USTE DUTE DELA SARRIEGI.

Pinotxo eta Edurne Zuri 69a egiten ari dira, eta halako batean esan dio neskak Pinotxori: "Hasi hadi gezurretan, arraioa!"

Aitatxo, nolakoak dira mozkorrak?" "Begira, alabatxo, ikusten dituzu hango bi zuhaitz haiek? Ba mozkorrek lau ikusten dituzte bi dauden tokian". "Baina, aitatxo, han zuhaitz bakarra dago eta".

Ailegatu da gizaseme bat tabernara, harro samarra omen; taberna lepo, jendez bete; erdi-erdian jarri da, denei begiratu, eta lurrean marra bat margotu du. Eta denei esan die:

- Marratik ezkerretara zaudetenak nazkante hutsak zarete, eta marratik eskuinera zaudetenak, tontoak". Bat altxatu egin da, eta,

- Hi, ni ez nauk nazkantea.
- Ba orduan tontoa haiz, eta jarri hadi beste aldean.

Zeruan pasa omen zen behin, zeruan ez, infernuan. Infernuan zera omen zegoen, Karl Marx, han omen zegoen. Infernuan ez omen zegoen bakerik. Eta deabruak eta denak:

- Marx honekin ez dago bakerik. Jesus, beti grebak direla, beti manifestazioa, beti kexa, ño, honekin zerbait egin beharra zegok.

- Hi, zerura eramango diagu.

- Zerura?

- Ikusiko diate horrekin.

Furgoneta hartu, benga, infernutik zerura, zeruko atean utzi. Zapla...

- Goazemak hemendik azkar, eskapada ederra egin diagu, dios.

Sei hilabete pasa omen dira eta

- Hi, gogoratzen al haiz - deabruak bata besteari - gogoratzen al haiz Marxekin? Zeruan ere ez duk giro egongo, Jesus! Joango al gaira galdeztera?

- Goazemak.

Furgoneta hartzen diate, eta berriz

ere zeruan atean, eta San Migelek atea irekitzen du eta:

- Iepa, egunon!

- Egunon, zera, zer moduz bizi zarete hemen zeruan edo.

- Ondo, zer ba?

- Hemen ez al zen agertu Marx ize-neko bat.

- Bai, eta?

- Ez al du manifestaziorik eta horrelakorik egin?

- Ez.

- Ondo, eta Jainkoak zer esaten du?

- Jainkoa? Jainkorik ez da existitzen, e!

Gizon bat traktorean doa, lasai lasai, eta halako batean atzetik motor bat etorri zaio, jo du traktorea eta hoge metro inguruan han doa hegan. Traktorekoa arrapaladan joan eta esan dio:

- Minik hartu al duzu, minik hartu al duzu?

Eta besteak:

- Hurrengoan atzean trapu gorri bat-edo jarri!

- Bai! Traktora ez duzu ikusi, eta trapu gorria ikusiko duzu zuk!






ZURE TXANDA

Milagros Narbarte

(Ama)



Garai batean gazteek noiz alde egiten zuten etxetik?

Ezkontzerako, gaur egun baino goizago. Berandu ezkontzen zenari buruz ze komentatzen zuen jendeak?

“Elizak hartuko tto!” edo “oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik azaldu ez” bezalakoak esaten ziren.

Gaur egungo gazteek zergatik ez dute zuek bezala egiten?

Biek lana egiten badute ere nahiko lanak!. Etorbizunaz ere gehiago pentsatzen dute...

Gazteek etxeko lanak egiten ez dute ikasi nahi izaten edo gurasoek ez diete erakusten?

Gurasoak ez dira erakusteaz arduratzen.

Gazteak ongi bizi direla uste al duzu?

Ongi bai baina beren kezkekin.

Ze konseju emango zenioke bakarrik bizitzen jarri den gazteari?

Txukuna izan dadila eta ez dadila etxearentzako bakarrik bizi, disfrutatu dezala!

Eta etxetik joateko presarik ez duenari?

Ez dut uste gurasoekin bizi nahi duelako egongo dela hor, zerbaitegatik egongo da etxean.

Gazteentzako laguntza moduan ze ikusten duzu aldatu beharko litzatekeela?

Laguntzak gurasoek eman beharrean “goiko” horiek eman beharko litzukete....

Imanol Legarreta

(Semea)



Gurasoen etxean edo zeure etxean hobeki?

Gurasoenean noski! (ja, ja!)

Noizbait egon al zara zure kabuz bizitzen?

Bai. Londresen 8 hilabetez, Iruñan urtebetez...

Etxeko lanak egitea etxetik kanpoko lana baino gustokoago al duzu?

Tokatzen dena gustora egiten dut.

Gehien eta gutxien egitea gustatzen zaizun lana?

Gehiena sukaldean aritzea eta gutxien... plantxatzea, ez dakidalako.

Lanak egiten zeuk ikasi duzu edo amak irakatsi dizu?

Sukaldean bai eta besteak ba ikusiz.

Gazteen egoera zaila dela etxetik kanpora joateko... ez al da aitzakia?

Ez, ez. Oso zaila da orokorrean nahiz eta batzuek bai hartu aitzakiatzat.

Etxe batean bakarrik jarriz gero bazkaltzera eta arropak garbitzera amarenera?

Ama dagoen bitartean horixe! (ja, ja!). Ez, ez zait iruditzen hori egingo nukeenik.

Zure etxea inaguratzeko festarik egingo al zenuke?

Ostiana! Guateke, alkohola... Puf!